

2024ko maiatzaren 16an

EUSKARA KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Paule Sanchez (EAJ-PNV)

BATZARKIDEAK

Pello Zabarte (Berbaro elkarte)
Sonia Oveja- (Durango Kirol taldea (atletismo taldea))
Carlos García (PP)
Jorge Varela (Herriaren Eskubidea-Independientes de Durango)
Oiber Frías (Nevers ikastetxea)
Gotzon Gomez (Durango Rugby taldea-Jesuitak)
Beñat Gaztelurrutia (Gerediaga elkarte)
Nerea Narbaiza (San Antonio ikastetxea)
Nerea Barrenetxea (San Antonio ikastetxea)
Jones Aizpurua (Mugarra Triatloi taldea)
Amaia Uranga (Kurutziaga ikastola)
Goiuri Aginako (EH BILDU-Durango)
Eneko Maurtua (Jesuitak ikastetxea)
Mikel (Durangoko Kulturala)
Jose Angel Orbegoza (DES-SVD)
Garbiñe Andrinua (Udal euskaltegia)
Gudiker (Durango Jai alai - zesta punta)
Mikel Iria (Ezkurdi kirol taldea)
Iban Ibañez (Ourdaybi)
Alberto Izagirre (Tronperri dantza taldea)
Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailea)

IDAZKARIA – Juan Antonio Atutxa (udaleko euskara teknikaria)

Tokia:	Durangoko Elkartegia
Izaera:	Ohikoa
Hasiera ordua:	18:30
Amaiera ordua:	19:45

Bilerari hasiera eman zaio eta euskara trebatzaileak ongi etorria eta eskerrak eman dizkie bertaratuei.

Batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertu dira:

1. BAT.- SARRERA

Alazne Arandok ongi etorria eman eta gogorarazi du Kontseiluko kide izateko izen-emate fitxa gutxi jaso direla oraindik, eta beraz, oraindik bete ez dutenei betetzeko eskatu die. Esan du bertan paperean betetzeko aukera dagoela edo bestela helbide elektronikora bidali daitezkeela.

Azaldu du bigarren Kontseilu honetan lanean hasiko garela jada, baina gaurko saioaren helburu nagusia bertaratuen ekarpenak jaso eta datuak biltzea dela.

Paulek hitza hartu du eta eskerrak eman dizkie bertaratuei. Aurreko Kontseiluan egon ez zirenentzat lehen bileran horretan egin genuena labur-labur azaldu du: elkar ezagutu, aspaldian geldirik egon den Kontseilua berriz martxan jarri, eta lehen 2-3 saioetan edo behintzat ikasturtea bukatu artean landuko den gai nagusia zein izango den esan du: ESEP, hau da, Durangon euskara sustatzeko ekintza plana.

Gogorarazi du udara arteko datozen lan bilerak gaurkoa eta ekainekoa izango direla: **ekainaren 13an, 18:30etik 20:00ak arte, Elkartegian.**

Bukatzeko esan du helburu nagusia hainbat arlotako erakunde eta eragileak biltzea dela, denek ekarpenekin euskarari bultzada bat emateko.

Tonik paper bana banatu die bertaratuei, jarraian aipatuko dituen datu soziolinguistikoekin, eta bitartean **Alaznek** azaldu du datu orokor batzuk izango direla, Durangoko egoera linguistikoaren argazki orokorra zein den ezagutzeko. Gero talde txikietan horren inguruko lanketa egingo dugula azaldu du. Bigarren ariketa bat ere egingo dela aipatu du.

Paulek azaldu du puntual hasi eta amaitzera konprometitu ginela, eta horrela izango dela gaur ere.

2. BI.- DIAGNOSTIKOA

Tonik hitza hartu du eta Durangoko datu soziolinguistiko orokorrak azaldu ditu: biztanleria, herriko euskararen ezagutza maila, kale-erabilera, ama-hizkuntza, sexuaren eta adinaren arteko sailkapena, Durangaldeko datuekiko alderaketa, eta beste datu interesgarri batzuk. Datuok Eustat eta Soziolinguistika Klusterretik hartuak direla azaldu du.

Aipatutako Durangoko datu soziolinguistikoak *1.Eranskinean* laburbilduta daude (5.or.).

3. HIRU.- LANTALDEAK

Azaldutako datuekin ideia orokor bat egin ondoren, **Alaznek** 4-5 kideko 4 taldetan banatu ditu bertaratuak eta talde bakoitzari kartulina bat eta errotulki bat banatu die. Kartulina bakoitzean taldekideen izen-abizenak eta nondik datozen idazteko eskatu die eta jarraian ariketekin hasi dira.

1. **ARIKETA:** (15 min) Tonik azaldutako datu soziolinguistikoen inguruko hausnarketa egin eta eztabaidatu: kezkak, ondorioak, puntu positiboak/negatiboak...

2. **ARIKETA** (30 min): Talde bakoitzari bi arlo desberdin banatu zaizkie eta eginbeharra honako hau izan da: Durangon arlo horretan euskarari dagokionez somatzen dituzten indarguneak eta ahulguneak identifikatu eta horien inguruan hausnartu eta eztabaidatu.

1. **TALDEA: KIROLA - ETORKINAK**
2. **TALDEA: KULTURA - HEZKUNTZA**
3. **TALDEA: MERKATARITZA - HEDABIDEAK**
4. **TALDEA: KIROLA - HEZKUNTZA**

Gaineratu du ekainaren 13ko Kontseilura gaur lantaldeetan jasotako datuak ekarriko ditugula eta horiek oinarri hartuta, lehentasunak eta lan-ildo zehatzak markatzen hasiko garela.

4. LAU.- PLENARIOA

Ariketak amaitu ondoren, bakoitza berriz bere lekuan jarri da eta **Alaznek** lantaldeetan komentatu direnak plazaratzeko gonbita egin die. Gogorarazi du gaurko saioa iritzi eta ekarpenak jasotzeko dela, gero etorriko den lanerako abiapuntu eta lehentasun batzuk finkatzeko.

1. ariketaren harira, **Gotzon Gomezek** taldean aipatutakoa plazaratu du: harrigarria egin zaie Durangoko euskararen erabilera Durangaldekoa baino handiagoa izatea.

Alaznek erantzun dio datu horiek 2017koak direla (horiek dira oraingoz, dauzkagun berrienak) eta urtetxo batzuk pasatu direnez, gaur egungo ikerketa berri batek datu desberdinak emango lituzkeela, seguraski okerragoak.

Garbiñe Andrinuak Gernikako adibidea aipatu du: Gernika Durangoren aldean askoz herri euskaldunagoa da eta 2023ko datuetan euskararen erabilera nabarmen jaitsi da.

Beraz, ondoriozta genezake, gurean ere beherakada egon dela kale-erabileran.

Gotzonek esan du orain arte durangarrak beti ikusi izan direla euskaldun bezala, eta datu hori kurioa iruditzen zaie.

Beñat Gaztelurrutiak gaineratu du Abadiño, adibidez, herri euskalduntzat daukagula, baina errealitatean oso erdalduna dela eta uste baino gutxiago egiten dela euskaraz.

Alaznek esan du orokorrean herri guztietan alde nabarmena dagoela euskararen ezagutza datuetatik benetako erabilera datuetara.

2. ariketari dagokionez, **Gudikerrek** esan du mundu digitalak orokorrean arlo guztietan eragina daukala eta gaur egun eremu hori oso erdaldunduta dagoela.

Jendeak sare sozialak eta bertako erreferenteak aipatu ditu horren adibide gisa.

Gudikerrek esan du sare sozialez gain, aplikazioetan ere (adibidez, jatetxeetako iruzkinak idatzi eta irakurtzeko *Tripadvisor* app-a) iruzkin eta mezuak erdaraz idazten direla gehienbat. Horren arrazoia, bere ustez, jende gehiagorengara iritsi nahi dutela da.

Paulek galdera bat bota dio: zuk uste duzu edukiak erderaz egiten dituztela oihartzun gehiago izan dezaten, edo berez erdarara jotzen dutelako?

Gudikerrek erantzun dio gauza biak gertatzen direla. *Tween Melody* biki gipuzkoarren adibidea jarri du: euskaraz ederto egiten dute eta beraien ibilbidea Goazen telesailan hasi zuten, baina benetako gorakada erdarara jo zutenean egin zuten. Berriz errepikatu du, orokorrean Youtube, TikTok edo bestelako sare sozialetako erreferenteek erdarazko edukiak sortzen dituztela.

Paulek esan du beraien taldean ere Internet aipatu dutela, orokorrean, esan bezala, guztiz erdaldunduta baitago.

Gotzonek beste kontu bat aipatu du: Durangon kultura arloko talde asko dago: musika, dantza..., baina orokorrean ikusgarritasun gutxi dute. Azpiegiturei dagokienez, esan du Gernikan adibidez Astra daukatela erakusleiko gisa, baina Durangon Plateruena itxita dagoela. Hala ere, etekina atera ahal zaien toki potenteak daudela azpimarratu du: Landako Gunea, Andra Mariko arkupea... Baliabide positiboak dira, baina etekin gehiago atera behar zaiela uste du.

Gainera, esan du Durangoko kultura taldeen ahalegina bistaratu beharra dagoela modu batean edo bestean. Interesgarria deritzo taldeek ikusgarritasuna lortzea, elkarren artean ezagutzea eta elkarrekin lan egitea, programazio sendoak sortzea eta horien zabalpena egitea, askotan ez baikara enteratzen herrian zein kultur-ekitaldi dauden.

Bukatzeko, **Alaznek** berriz errepikatu du Kontseiluko kide izateko izen-emate orriak betetzeko, oraindik bete ez dutenentzat.

Bestalde, hurrengo bilera eguna noiz eta non izango den gogorarazi du: **ekainaren 13an, 18:30etik 20:00ak arte, Elkartegian.**

Paulek eskatu du norbaitek ekarpenik badu edo gaur esatera ausartu gabeko kontuak azaldu nahi baditu bilerako dinamizatzailerok pasatzeko.

Alaznek esan du hurrengo Kontseiluan gaur taldeetan idatzitako ideia eta ekarpen guztiak azalduko direla eta arlo zehatz batean zentratuko garela, lanketa sakonago edo zehatzago batekin hasteko.

5.BOST.- GALDE-ESKEAK

Ez da galderarik egon.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, euskara kontseiluaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut.

I. Eranskina

Euskararen ezagutza eta erabilera Durangon

Biztanle kopurua

- 29.914 (2024ko urtarrilaren 1ean)

Hizkuntza ezagutza (Eustat, 2021)

- Euskaldunak: %52,5
- Ia euskaldunak: %18,8
- Erdaldunak: %28,7

Ama hizkuntza (Eustat, 2021)

- Euskara ama hizkuntza: %15
- Gaztelania: %66
- Euskara eta gaztelania: %17
- Beste hizkuntzaren bat: %3

Durangoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa¹

- Euskaraz: %22,7
- Gaztelaniaz: %75,4
- Beste hizkuntzaren bat: %1,9

Euskararen erabilera Durangaldean (Soziolinguistika klusterra, 2017)

- 2011n: %16,5
- 2016an: %18
- 2021ean: %21,5


Euskararen erabilera sexuaren arabera (Soziolinguistika klusterra, 2017)

- Emakumeek: %23,5 euskaraz, % 74,8 gaztelera, % 1,7 beste hizkuntza baten.
- Gizonek: %21,6 euskaraz, %76,1 gaztelera, %2,3 beste hizkuntza baten.

¹ Soziolinguistika Klusterra, *Durangoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa 2017*

6. Emaitzak: adinaren arabera, ezagutza eta erabilera

16. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN GAITASUNA eta KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. Durango 2017 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Durangoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017 eta EUSTAT

Ondorio aipagarriak

- Haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 37,8).
- Gazteen erabilera (15-24 urte) % 25,2koa da.
- Helduena (25-64 urte) % 18,8koa.
- Adinekoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak (% 14,5).
- Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean %19,7koa da euskararen erabilera.
- Nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, %14,3tan darabilte euskara.
- Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, % 42,2ra igotzen da erabilera.
- Gaitasunaren eta erabileraren artean salto handia dago: umeen %82,5ek daki euskaraz eta gazteen artean, berriz, %61,9k. Beraz, jakitetik egitera, oraindik ere, alde handia dago.
- **Merkataritzan:** eguneroko erosketen esparruan, bezero-merkatarien arteko euskararen erabilera %10-30era mugatzen da Durangoko udalerrian.